



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BARAKALDOKO UDALAREN 2021EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

Joan den azaroaren 6an, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Barakaldoko Udalaren 2021eko ekitaldiko fiskalizazio-txostena. Txostena Udalaren, haren 4 organismo autonomoen eta 3 sozietate publikoen kontuek osatzen dute, eta % 100 udalaren jabetzakoak dira.

2021eko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du; alabaina, kontabilitateko zenbait doikuntza egin dira, eta horiek erregistratzeak Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikina 2,8 milioi euroan murriztuko luke. Gainera, ezin izan da zenbatetsi Udalak Usoa Lantegia SAUri lagatako lurak zer zenbatekorekin egon beharko luketen erregistratuta sozietatearen urteko kontuetan.

Udalaren finantza-egoerari dagokionez, Epaitegiak adierazi du egoera ekonomikoa eta finantzarioa ona dela, nahiz eta Diruzaintza Geldikina 9,6 milioi euro murriztu den 2020ko urtearen aldean. Erabilitako zorra ere 2,8 milioi euro murriztu da 2019az geroztik.

Udalak zuzentasunez **bete du** 2021ean ekonomia- eta finantza-jarduera arautu duen **lege-araudia**, baina akatsak azaleratu dira langileen eta kontratazioaren ataletan; pertsonalari dagokionez, 3 erakunde autonomok ez dute LPZrik, eta horrek ez du EFPLn xedatutakoa betetzen; eta kontratazioari dagokionez, 5 zerbitzu-kontratuk eta hornidurako kontratu batek egikaritzen jarraitu dute iraungi ondoren, nahiz horiek guztiak luzaezinak ziren; gastuak egin dira zerbitzuak emateko itunen gehieneko indarraldia amaitu ondoren; eta sozietate batean hornidura bat kontratatu da publikotasun- eta lehia-printzipioak bete gabe.